

Antropologia Euskal Herriko Unibertsitatean: Akademizaziotik bikaintasunera

Ixone Fernández-de-Labastida Medina

EHU-ko irakaslea eta Jose Miguel de Barandiaran Fundazioaren lehendakaria.

Laburpena

Euskal antropologia, akademiatik at sortu zen garai historiko eta politiko zehatz batean. Hala ere, disziplina honekiko eta hurak landutako ikergaiarekiko atxikimendu berezia egon da euskal gizartean, orokorrean. Jose Miguel Barandiaranek lortutako fruituak Etnografiako Euskal Eskola eta Etniker taldeen sorkuntza izan ziren. Teresa Del Valleri zor zaio, berriz, euskal antropologiaren akademizazioa Euskal Herriko Unibertsitate Publikoaren barruan 1980. hamarkadatik aurrera. Ondoren, euskal unibertsitate-sistemak Europako Goi Mailako Hezkuntzaren Esparrura egokitzearen ondorioz, Gizarte Antropologia gradua ezartzen da 2010. urtetik aurrera erronka berriak ekarriz.

Gako-hitzak: euskal antropología, gizarte antropología gradua, practicum, UPV-EHU.

Jasotze data: 2021eko urriaren 21ean

Onartze data: 2021eko urriaren 22an

Abstract

Basque anthropology emerged outside the academic sphere in a specific historical and political period. Even so, there has always been a certain degree of support for this discipline and its object of study in Basque society. In the case of Jose Miguel Barandiaran, the results obtained were the creation of the Basque School of Ethnography and the Etniker groups willing to record information on local ways of life throughout the Basque Country, following his methodological recommendations. On the other hand, Teresa Del Valle promoted the academicisation of Basque anthropology within the structure of the Public University of the Basque Country and subsequently the creation of the bachelor's degree in Social Anthropology in the 1980s. Subsequently, the introduction in the 2010s of the degree in Social Anthropology in response to the adaptations made by the Basque University system to the European Higher Education Area has brought new challenges.

Keywords : Basque anthropology, degree in social anthropology, practicum, UPV-EHU

1. SARRERA

Artikulu honetan Euskal Herriko Unibertsitatean antropologia ikasketak nola ezarri eta garatu izan diren landuko da. Horretarako, disziplina honek gure herrian izan duen bilakaerari buruzko bibliografia luzea kontsultatu da (del Valle, 1981; Apalategi 1981a, 1981b, 1987; Aguirre, 1986; Manterola, 1984; Erkoreka, 1988; Homobono, 1992; Fdez. de Larrinoa, 1991, 1993, 2002; Rubio-Ardanaz, 1996; Zulaika, 1996; Martínez Gorriarán, 1997; Bidart, 2001). Lan horiek irakurrita ondoriozta daiteke euskal kulturari buruzko azterlan antropologikoen garapena hainbat une historikotatik igaro dela. Artikulu honen egileak ere, aurretik egindako lan batean (Fernández de Labastida, 2013), zehazki hiru etapa nagusi identifikatzen ditu. Lehenengoan, idazleek, kronikariek eta bidaiariek Euskal Herriaren bizitza eta ohiturekiko duten interesa nabarmentzen da. Horren ondorioz, izaera etnografiko handiko lanak aurkituko ditugu, esaterako, Vicente Moguelen *Peru Abarka* obra, XVIII. mendearen amaieran idatzia. Denen artean, Wilhem Humboldt erromantiko alemaniarraren lana izan da garai honetako adierazlerik nagusia (XIX. mendearen amaieran eta XX. mendearen hasieran *Diario del Viaje Vasco* idatzi zuena). Garai honek, Euskal Herriko sistematizazio antropologikoen etaparako oinarriak ezartzen lagundu zuen. Neurri batean, haren aztergaia (landa-giroko bizimoduak eta, bereziki, isurialde atlantikoak irudikatutako baserriarenak) eta haren gainean eskaintako ikuspegia (bizimodu tipikoen idealizazioa, modernizazioak haietan eragiten dituen ondorioekiko erantzun erromantiko gisa) gerora mantendu ziren.

Euskal antropologia euskal landa-inguruneari buruzko azterketa arkeologikoak eta etnografikoak sistematizatzen direnean sortzen da. Tokiko bizimodu eta ohiturenganako interes zientifiko honen ondorioz sortu zen euskal eskola etnografikoa (Apalategi, 1981; Homobono, 1992). Esan beharra dago, garaiak markatutako errepresio politiko eta marjinazio akademikoko testuinguru batean murgilduta egon zenez, horrek baldintzatu egin zuela diziplina honen garapena Euskal Herrian XX. mendearen hasieratik 1980ko hamarkadara arte. Hala eta guztiz ere, Joseba Zulaikak (1996) “euskal antropologiaren urrezko aro” (157. or.) gisa identifikatzen du etapa hau. Urrezko aro honetan sistematizazio metodologikoko lan eskergari eta Euskal Herrian zehar informazio etnografikoa biltzeko tresnak gizarteratzeko eguneroko ahaleginei esker etnografia eta landa-lana ezagutza-praktika gizarteratu ziren. Lan hori Euskal Etnografia Eskolaren sortzaileari, Jose Migel Barandiaran antropologoari eta berak sortutako Etniker taldeei zor zaie nagusiki.

Horren ondoren, Joseba Zulaikarekin jarraituz (1996), diziplina-dibertsifikazioa eta unibertsitate-akademizaziorako ahaleginak gertatu ziren 1990. hamarkada bitartean eta 2000. hamarkada ondo sartu arte. Urre-koloreko aro berri bat da hau, prestakuntza eta ikerketa areagotzea ezaugarri duena, eta horren ernamuina unibertsitatean dago. Baina, aldi berean, bere lorpenak esparru profesionalera zabaltzen ditu unibertsitatearen eta gizartearen arteko loturari esker.

Artikulu honen helburua antropologiak gaur egungo euskal unibertsitate-eremuan duen errealitatea labur-labur azaltzea izango da. Horretarako, EHUko Balioen Filosofia Sailean eta, konkretuki, Gizarte Antropologiako graduan jarriko dugu arreta, Iñaki Homobonok (1992) azaltzen duen bezala, euskal antropologia sozialaren jardura akademiko eta ikertzailearen zatirik handiena unibertsitate horren barruan kokatzen baita instituzionalki. Era berean, euskal antropologiaren ezaugarria bada testuinguru sozialarekin harreman estua erakustea. Jose Migel Barandiaranek etnografiako euskal eskola sortu zuen bezala, Euskal Herriko Atlas Etnografikoaren proiektuaren inguruan ikertzaile ugari bilduz eta hedatuz, geroago, Teresa del Valle beste antropologo batzuekin batera (Txemi Apaolazaren edo Carmen Diezen ekarpenak aipa daitezke), EHUko Antropologia lizentziaturaren sorrera bultzatu zuen euskal Antropologia Elkartek (Ankulegi) eta ikasle-mugimenduak lagunduta.

2. EUSKAL ANTROPOLOGIAREN AKADEMIZAZIORAKO LEHEN URRATSAK

Zehatzago jorratu da Ankulegi Euskal Antropologia Elkartearen eta antropologia-ikasketak euskal esparru akademikoaren arteko harremana Eusko Folklore Urtekariko zenbaki honetako beste artikulu batean¹. Bertan, egileek zehatz-mehatz azaltzen dute Ankulegi elkartearen sortzeko prozesua. Prozesu hori hainbat mugarririk markatzen dute, eta horietako bat da, hain zuzen ere, Gizarte eta Kultura Antropologiako Lizentziatura sortu eta ezarri izana euskal unibertsitate-sistemaren barruan 1990eko hamarkadaren hasieran.

Testu honetako egileek euskal antropologiaren akademizazioan egon den inplikazio soziala nabarmendu dute nagusiki. Ondoren, lizentziaturatik graduko ikasketetara igarotzen denean ordura arte eman den antropologia eta euskal gizartearen arteko lotura hori sendotzen da *practicum* bezalako ikasgaiari esker. Balioen Filosofia eta Gizarte Antropologia Sailak sustatutako masterrek, ikerketa taldeek eta proiektu nagusiek antropologiak azken hamarkadetan gure lurraldean eta lurralde horretatik kanpo eskuratu duen kalitate akademikoaren berri ematen dute baita ere. Gai hauetara hurrengo atalean hurbilduko naiz, eta honetan berriz artikuluaren sarreran aipatzen nuen euskal antropologiaren garapenaren hirugarren etapari buruz, hau da, euskal antropologiaren sendotze akademikoari buruz arituko naiz.

1 25 años de ANtropologia, KULTura Eta GIZarte, (Ankulegi Euskal Herriko Antropologia Elkartea). Eusko Folklore Urtekaría 55 (2021)

Gizarte eta Kultura Antropologiako Lizentziatura 1995-96 ikasturtean sortu zen Euskal Herriko Unibertsitatearen eta Deustuko Unibertsitatearen barruan, baina horren akademizazio-prozesua lehenagotik hasia zen.

Antropologia euskal unibertsitate-sistemaren ikasketa-planean sartu zen, neurri handi batean, 1970eko eta 1980ko hamarkadetan Europako eta AEBetako beste unibertsitate batzuetan trebatutako euskal antropologo itzuleraren ondorioz. Era berean, 1960ko hamarkadatik aurrera antropologo anglosaxoi batzuek euskal antropologian izan zuten eragina ere erabakigarria izan zen. William Douglass, Davyd Greenwood edo Sandra Otten lanek, batez ere, euskal etnografia-eskolaren bestelako esparru teoriko eta metodologiko bat txertatu zuten euskal landa-testuinguruari buruzko azterketari dago-kionez. Euskal antropologia akademizatua landa-lanaren eta errealitate sozialaren analisi estrukturalista eta sinbolikoaren tradizio anglo-frantses horretatik (Ankulegi, 2021) edan zuen gero, eta ez hainbeste euskal eskola etnografikoa inspiratu zuen Alemaniako korrante antropologietatik.

1979/1980 ikasturtean Gizarte Antropologia Saila eratu zen EHUren barruan, Teresa del Valleren eskutik. Hau, geroago, 1987an, Balioen Filosofia eta Antropologia Sailean bihurtu zen, gaur egunera arte dirauena. Euskal Unibertsitatean antropologiako lehen saila finkatu zenetik, antropologiako hainbat ikasgai eman ziren antzeko lizentziaturetan eta doktoregoko ikastaroetan. Azkenik, 1995/1996 ikasturtean Gizarte Antropologiako lizentziaturako lehen ikastaroa eman zen Euskal Herriko Unibertsitatean eta Deustuko Unibertsitatean. Berezko lizentziatura sortzea ahalbidetu zuena antropologia-elkarte desberdinek estatu mailan elkarrekin egindako lan-prozesu luze bat izan zen. Elkarte horiek sarean lan egin zuten etorkizuneko lizentziaturaren ezaugarriak definitzeko. Horien artean Ankulegi oso modu aktiboan aritu zen. Geroago, lizentziatura Europako unibertsitate-sistemaren eskakizunetara egokitzearen ondorioz, bigarren zikloko lizentziatura 4 urteko unibertsitate-gradu bihurtu zen. Aldaketa honekin batera, antropologiako ikasketak orientazio profesionalizatzaile argia bereganatu zuen: ikasketa-planaren 18 ECTS² (180 ordu presentzial) kanpoko erakunderen batean egin behar dira derrigorrezko praktika moduan.

2 ECTSak Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparruak sortutako kreditu sistema da. ECTSren kasuan, hezkuntza-programa jakin batean ezarritako helburuak lortzeko ikasleek duten lan-karga da atzematen duen balioa. Horrela, ikasturte bateko ikasleei lotutako lan-karga 60 ECTS dira. Ikastaro baterako urteko lanorduak 1.500 edo 1800 dira; beraz, kreditu bakoitzak 25 edo 30 lanordu hartzen ditu. EHU-UPVren kasuan 25 ordu dira.

3. GIZARTE ANTROPOLOGIAKO IKASKETAK GAUR EGUNGO UPV-EHUKO TESTUINGURUAN

Diziplina-dibertsifikazioak eta unibertsitatean akademizatzeko ahaleginak 2000. Lehen hamarkadara arte iraun zuen euskal antropologiaren kasuan. Gizarte Antropologiako gradua 2010ean jarri zen abian, antropologiako ikasketa-planak bai irakaskuntzari dagokionean nahiz ikerketari dagokionean ere, EHUren barruan egonkorra eta sendoa zenean.

Gizarte Antropologia gradua EHUko Donostiako Campusean kokatuta dagoen Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatean irakasten da eta esan bezala, dozentzia, Balioen Filosofia eta Gizarte Antropologia Sailaren esku dago. Konkretuki 27 irakasle daude atxikita sail honetara Gizarte Antropologia arloan.

Gizarte Antropologia 240 ECTSko gradua da eta horietariko 18 kanpo praktikak egitera zuzentzen dira, aurrerago azalduko den bezala. Gradua ezarri zenetik hona, plazen eskaintza 55 ikaslerena da eta lekuen eskaintza-eskaera hau nahiko egongor mantendu izan da azken urteetan, graduak duen erakargarritasunaren seinale. Gaztelaniz edo euskaraz ikasteko aukera dago nahiz eta gradua ezarri zen momentutik (eta lehenago ere, lizentziaturaren joera berdina baitzen) euskarazko taldeak handiagoak izaten diren. Horretaz gain, ikasgai gutxi batzuk ingelesez ere ikasi daitezke azken ikasturtetik aurrera.

Gradu hau osatzen duten moduluak hamar dira. Alde batetik, honako hauek daude: Historia, Filosofia, Estetika eta Soziologia. Funtsean, gai orotarikoak eta, jakina, diziplinarte-koak dira. Bestetik, diziplina antropologikoarekin lotura zuzena duten moduluak daude, hala nola; Gizarte Antropologiaren Teoria eta Historia, Gizarte Antropologiaren gai-eremuak, Epistemologia, Ikerketa Antropologikorako Metodoak eta Teknikak, Gizarte Antropologiaren Praktika Profesionalerako Prestakuntza eta Gradu Amaierako Lana. Horien guztien artean 1995/1996. ikasturtean ezarri zen Gizarte Antropologia Lizentziaturarekiko ezberdintasun nagusia azken bi modulu hauetan dago. Hau dela eta, modu sakonago batean arituko gara horietaz.

Bestalde, lehenago aipatu den bezala Euskal Herriko Unibertsitatean Gizarte Antropologiako jakintza master eta graduondokoen eskaintzaren barruan present egon da hasieratik. Are gehiago, 1980. hamarkadan lehen antropologia ikastaroak doktorautza kurtsoak izan ziren. Orditik gaur egunera arte, berariazko graduondoko eskaintza bat sortu da Antropologia arloan. Gizarte Antropologia masterrak, egun, ikasleak antropologiaren arloan ikertzeko eta lan egiteko gai direla bermatzea eta horretarako baliabide teoriko, metodologiko eta praktikoak ematea du helburu. Master honen bidez, beraz, ikasleek gizarte antropologiarekin lotutako ezagutza espezializatu eta aurreratua eskuratuko dute, UPV/EHU diziplina horretan landu diren ikerlerro tradizionalak jorratuz: euskal kultura, ikuspegi feminista antropologian, eta gaur egungo etnografiak. Helburu hori lortzeari begira, erabilerei eta eragin epistemologikoei dagokienez, berritzaileak diren ikuspegi teoriko eta metodolo-

gikoak orientatzeko antolatuta da prestakuntza programa. Modu honetan, programak balio akademiko eta sozial handia dauka, ikuspegi antropologikotik ekarpen nabarmena egiten diolako aniztasun sozial eta kulturalaren, gizarteko eta genero arteko desberdinkerien eta eraldaketa sozialaren inguruko analisiari.

Masterrak 60ECTS ditu eta haren iraupena 2 urtekoa da, ikasgaiak euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez eskeintzen direlarik. Guztira, 20 plaza eskeintzen dira ikasturtero eta masterra osatzen dituzten edukiak hurrengoak dira: Produkzio antropologikoa: balantzea eta erronkak; Gaur egungo hurbilketak eta proposamenak antropologian; Kulturaren dimentsio politikoak eta ekonomikoak; Identitateen eraikuntza; Teoria antropologikoaren ikuspegi kritikoa; Genero sistemak, ikuspegi konparatiboa eta erlatibismoa/unibertsalismoa; Boterearen jarduerak eta espazio-denborak: erresistentziak eta aldatketak; Naturalizazio prozesuak eta sistema sinbolikoak; Ikerketa proiektu batean parte hartzea; Landa laneko mintegia; Gizarte egitura eta erlazioak, Euskadin; Kultura ondare eta ikuskizun bihurtzea; Tokiko errealitateak mundu global batean; Euskal kulturaren errepresentazioak, mitologiak eta errituak; Ikerketa proiektu bat diseinatzea; Ikerketa mintegia eta Master amaierako lana.

3.1. Gizarte Antropologiako gradua: teoria eta praktika uztartzen.

Teoriaren eta praktikaren arteko harremanari buruzko eztabaida gizarte-zientzien artean zabalduta ohi da, oro har, eta Antropologiaren kasuan, haren muga nagusietako bat da (Gimeno, 2008, 250. or.). Teoria-aplikazioa antropologiari eragiten dion dikotomia nagusietako bat da, eta diziplinaren barruan oraindik amaitu gabe dagoen eztabaida bat aipatzen du: antropologoa izatea zer den eta zertarako balio duen. Antropologoa ezagutza-sortzaile huts gisa edo, aitzitik, eraldaketa soziala eragin dezakeen eragile gisa ikusteaz ari naiz (Jabardo, Monreal eta Palenzuela, 2008:10).

Teoria eta praktikaren arteko haustura gordina ukatzen duen posizioarentzat, errealitatea ezagutzeko nahiak ez ezik, arazo praktikoen aurrean konponbideak bilatzeak ere motibatzen du antropologoa (Mair, 1997:33). Jarrera jakin horretatik, ezagutza baliozkoa bihurtzen da ikuspegi kritikoa batetik egiten denean (Bullen, 2012:93), ikuspegi teorikoa eta akademikoak gaituz eta pertsona guztiak zapaltzen dituen gizarte-egituraren eraldaketa sustatzeko gaitasuna azpimarratuz. Azken gai horri emandako enfasiak antropologia mota horren izendapen posibleei buruzko eztabaida markatu du, antropologia aplikatuaren ideia gaituzten duten proposamenekin topo eginez eta horren ordean antropologia aktibistari (Harris, 1997), iraultzaileari edo libertarioari (Grillo, 1985) tokia utziz. Nire ustez, EHU-ko Gizarte Antropologia gradua diseinatu zenean, Mercedes Jabardo, Pilar Monreal, Pablo Palenzuela (2008), Juan Carlos Gimeno (2008) edo Teresa San Román (1984, 2012) bezalako antropologoen garatu duten Antropologia Orientatuaren ikuspegian oinarritu zen proposamena. Kontzeptu honekin, antropologiak errealitate sozialari buruzko ezagu-

tza sortzeko duen gaitasuna nabarmendu nahi da, bai eta ezagutza hori erabilera publikora bideratzeko duen gaitasuna ere, gizarte-ekintza bideratu eta horrekin eraldaketa-prozesuak sustatu ahal izateko.

Gizarte Antropologiako ikasketak egun osatzen duen Praktika Profesionalerako Prestakuntzarako modulua neurri batean Antropologia Aplikatuaren ikuspegi orokor honetan oinarritzen da. Antropologia Aplikatuaz ari garenean Claudio Esteva-Fabregat-en (1973) moduan ulerturik, ezagutza-sistema batetaz ari gara. Honek, arazo sozialei gatazkarik gabe aurre egiten lagunduko digu kasu batzuetan, bestetan, arazo horiek nola azal daitezkeen edo nolakoak izango diren aurreikusi. Teoria moduan emandako ezagutza horiek ideologiak eraldatzen lagundu ohi dute, eta, horregatik, politika berriak hartzen laguntzen dute (310. or.). Modulu honen helburua ikasleei gizarte-antropologiaren praktika profesionalaren oinarri teoriko, metodologiko eta teknikoei buruzko ezagutzak eskaintzea da, orientabide profesional desberdinetan: kulturen arteko harremanak, garapena eta lankidetzeta, kultura-ondarea, kultura-kudeaketa, ikerketa eta irakaskuntza, ikerketa aplikatua eta zerbitzu pertsonal, sanitario eta sozialetako aholkularitzak.

Modulu hau osatzen duten ikasgai ezberdinen helburua da ikasleak hurrengo lan-esparruetan trebatzea: aniztasun kulturala eta erlazio interkulturalak, ikerketa aplikatua: kontsultoriak, administrazio publikoa eta kudeaketa kulturala eta azkenik, irakaskuntza, ikerketa eta ezagutzaren zabalkuntza. Horretarako esparru horien inguruko ikasgai presentzialak daude unibertsitatean eta ondoren, practicum izeneko ikasgaia.

3.2. Praktika profesionalerako prestakuntza: antropologiako practicum

Gizarte Antropologiako graduak bereganatu zuen ikuspegi teoriko-praktiko honen adierazlerik aipagarriena ikasleek gradua amaitu baino lehenago, unibertsitatekanpoko erakunde batean egingo dituzten 18ECTS ordu horiek dira. Konkretuki, EAE mailan lehenago aipatutako esparruetan aritzen diren entitate publiko nahiz pribatuetan, zeintzuk gradua ezarri zenetik eta urtero antropologiako ikasleak praktikan hartzen dituztenak. Gerora esperientzia honek ikasle hauen lan-esparruko txertaketan izugarri lagundu du gradua ezarri zenetik, eta azken datuen arabera, txertatze maila hori %60koa izan zen erregistratutako azken datuen arabera³.

1990. hamarkadan Gizarte Antropologiako lizentziaturarekin gertatu zen bezela, gerorago ere graduko practicuma EHUko Gizarte Antropologia arloa eta Ankulegi elkartearen arteko lankidetzaren ondorioz sortu zen. 2012. urtean hasitako prestakuntza lanen ondorioz,

3 Gizarte Antropologiako graduaren jarraipen autotxostenetik jasotako datuak, 2020ko otsailaren 26an aurkeztutakoa. Adierazitako datua 2015 urtekoa da.

2013-2014. ikasturtean jarri zen martxan lehen practicum esperientzia Gizarte Antropologia graduan. Prozesua eta lehen esperientziaren nondik norakoen berri eman dute lehenago practicum batzordean lan egin duten saileko irakasle eta Ankulegikideek. Jarraian estatu mailan egin diren zenbait kongresuetan (Díez, 2011; Bullen eta Urquijo, 2014) gai honen inguruan aurkeztu diren komunikazioetan oinarrituko gara hurrengo laburpena egiteko.

Gizarte Antropologiako practicuma egin zuen lehen ikasle taldea txikia izan zen kopuruz, 10 ikasle euskarazko taldean eta beste 10 gaztelerazkoan, hau da, 20 guztira. Beraz, hasiera batean behintzat, practicuma martxan jarri zenean ez ziren behar izan praktika gune asko. Gainera, ikasleen ekimena erabakigarria izan zen autopacticumaren bitartez, berauek ere kontaktuan jarri izan zirelako erakunde ezberdinekin. Are gehiago, practicumaren lehen edizio honetan, autopacticuma bilatzeko ekimen propioen maila handia nabarmendu zen, eta horrek eragin positiboa izan zuen motibazioan, konpromisoan eta praktiken betetzean. Horien ondorioz, erakunde gehienek zerrenda berri nahi izan zuten hurrengo edizioan, baita praktiken eskaintza handitu ere.

Gizarte Antropologiako practicuma abian jarri zenean zazpi jarduera-esparru identifikatu ziren, eta lehenengo edizio hartan sei hartu ziren (enpresaren esparrua kanpoan geratu zen). Ikasleek parte hartu zuten arloak eta zentroak honako hauek ziren: a) ondare etnologiko eta kulturalaren arloan lau museo izan ziren; b) gizarte-zerbitzuen eta osasun-arretaren euskarrian, udal bateko berdintasun-zerbitzuan eta immigrazio-zerbitzuan, eta mendeko pertsonentzako edo desgaituentzako arreta espezializatuko bi zentroan; c) kultura-ondarearen inguruko fundazioan eta kultura-kudeaketaren arloan, kultura-ondarearen eta -sorkuntzaren arloan. d) Ikerketan eta aholkularitzan, antropologia aplikatuko aholkularitza bat; hizkuntza-zerbitzuak eskaintzen dituen aholkularitza, berdintasun-planetan eta herritarren partaidetza-planetan aholkularitza; ondare ez-materialarekin eta memoria historikoarekin lan egiten duten bi erakunde, eta unibertsitate-ikerketaren esparruan parte hartzeko esperientzia bat, oraingoan Argentinan; e) kulturen arteko bitartekotza, multikulturalismoa eta migrazioa esparruak; f) garapenerako lankidetzak, hiru GKEetan gainjartzen dira arrazakeriaren eta berdintasunaren alde lan egiten duten emakumeen eskubideak. Bestalde, garapen-lankidetzarako proiektuak Practicumean beste jarduera-eremu bat dira baina beren kudeaketa propioa dute EHUko Nazioarteko Lankidetzako Bulegoaren bitartez.

EHUn Antropologia esparruan izandako lehen practicum esperientzia honen inguruko ikasleen eta tutoreen balorazioa hurrengoa izan zen. Practicum batzordeari adierazi izan zitzaionez, kasu askotan, ez zuten antropologo gisa bete zezaketen zereginari buruzko autopertzepzio sendorik. Praktikak hasi aurreko saioetan haien profil profesionala definitu zen, arlo bakoitzari lotutako konpetentzia profesionalak landu ziren, antropologiarako hainbat kode deontologiko aztertu ziren, praktika-zentroen webgunea aztertu zen eta proiektu posible bat diseinatu zen han aurrera eramateko. Hala ere, edozein proiektu berriztatzaile lehen aldiz aurrera eramaten denean gertatzen den bezala, erreferenteen falta somatu zuten

bai praktiketako ikasleek, tutoreek, nahiz erakundetako instruktoreek ere. Aurrekoari gehitu behar zaio Gizarte Antropologiaren eta haren ekintza-gaitasunaren ezjakintasun orokorra lehen aipaturiko esparru profesioaletan.

Zazpi urte ondoren egoera aldatu egin da poliki-poliki. Ikasle gehiago dira practicuma egiten baina kudeaketan esperientzia handiagoa da eta batez ere, hau, tutoreen lanean antzematen da. Erakunde askok urtetik urtera ikasleak hartzen dituzte beregain eta baita horri esker ere, horien zereginak argiago daude. Hasierako zalantzak eta kezkek argituz joan dira, besteren artean, aurretik aipatutako esparru guzti horietan antropologoaren profil profesionala litzatekeenari buruzkoa ere bai. Ikasleek adierazi zuten bezala, practicum ikasgaiak lagundu izan zien berauen konpetentzia profesioaletaz ohartzeko. Beraz, zentzu handi batean, EHUko Gizarte Antropologiako practicum ikasgaia martxan jarri zenetik 2013/2014. ikasturtean, hurak euskal antropologoaren praktika profesionala zehazten eta ikustatzen lagundu du EAEko erakunde publiko eta pribatu askoren artean eta baita unibertsitatearen barruan ere.

4. IKERKETA ANTROPOLOGIKOA EHU-N: ANTROPOLOGIA FEMINISTAREN GAILENTZEA

EHUn Gizarte Antropologia saila sortu zenetik Teresa del Valle eta beste antropologo berrien eskutik, ikerketa izan da irakasleen zereginetariko nagusia. Ibilbide luze horren ondorioz, azken ikasturteetan antropologia arloan metatutako ekoizpen zientifikoa ikusgarria izan da. Gizarte Antropologia gradua martxan jarri zeneko garaia aintzat hartuz (2010tik hona), Gizarte Antropologia arloko produkzio zientifikoari buruzko datu hauekin aurkitzen gara:

	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020
Zuzendutako tesiak	4	3	2	2	2	2	4	1	0	1	2
Finantziatutako proiektuak eta ikertaldeak	12	13	20	23	28	29	22	18	15	15	16
Ikerketa kontratuak	1	1	1	1	1	4	4	7	4	6	5
Artikulu zientifikoak	3	3	5	2	5	3	3	7	2	1	3
Publikazioak	15	11	9	6	9	2	5	3	3	2	1

Iturria: Balioen Filosofia eta Gizarte Antropologia Saileko memoriak eta ekintza zientifikoko txostenak.

Datuek erakusten duten moduan, Gizarte Antropologia arloko 27 irakasle-iker-tzaileek berauen iraskuntza ardurekin batera, ekintza zientifiko aipagarriak daramatzate aurrera modu jarraikorrean. Aurrekoaz gain, bestelako ekimen zientifikoetan ere hartzen dute parte modu indibidualean nahiz kolektiboan: kongresuak, jardunaldiak eta minte-giak, hizlari nahiz antolatzaile gisa; izaera ezberdina dituzten batzorde zientifikoetan aditu gisa edo ikerketa egonaldiak eginez beste unibertsitate batzuetan.

Edukiei dagokionean, esan beharra dago, Euskal Herriko Unibertsitatearen ba-rruan diziplina antropologikoa gizarte-eraldaketei eta problematikei buruzko ikerketak egitera bideratuta egon dela hasieratik. Honek, aurreko garaia eta tradizioarekin haustura nabarmena suposatzen zuen.

Guztien artean genero-azterketa gai errepikaria izan da, ikerketa-ildo nagusia osa-tuz sailaren barruan. Antropologia Euskal Herriko unibertsitate-ikasketa planetan sartu zenetik, ikerketa ildo nagusia eta ia bakarra (jorratzen diren beste ikerketa gai batzuk ez bezala, genero ikasketak ikerketa ildo bat suposatzen dute hasieratik) generoaren antropo-logia izan dela dio Iñaki Homobonok (1992). Euskal antropologian antropologia femi-nista honen hastapena Teresa del Valleri sor zaio. Korrante teoriko-metodologiko honek sailaren sorkuntza eta garapenean izan duen garrantziaz ohartzeko bi mugarri aipatuko dira: EHUko Gizarte Antropologia Saila *Emakumearen inguruko Ikasketen Mintegiarekin* (1980) eta *Sexu-bereizketa eta -hierarkizazioa* doktorautza kurtsoarekin (1984) batera sortu zen.

Euskal emakumeen errealitateari buruzko azterlana Del Valle buru zuen ikerke-ta-talde baten sorrerari esker eratu zen (talde horren barruan zeuden saileko beste an-tropologo batzuk, hala nola Carmen Díez, Txemi Apaolaza edo Jose Martín Apalategi). Ikerketa hau, Jose Miguel Barandiaran Bekaren (1981-1984) markoaren barruan egin zen eta kostalde eta hiri inguruneetako euskal emakumeen portaera eta balioak aztertu ziren. Proiektu horren emaitza izan zen Estatuko antropologia feministaren erreferentziazko testu nagusietako bat, *Mujer Vasca. Imagen y realidad* (1985).

Garai honetako ondare teoriko eta metodologikoak gaur egun arte iraun du sai-laren barruan. Hala erakusten du Gizarte Antropologia graduko irakaskuntza planean genero gaiak eta teoria-metodologia feministek duten garrantziak. Baita ere Gizarte An-tropologia arloko irakasle-iker-tzaileek Ikasketa Feministak eta Generokoak masterrean duten parte-hartze eta kudeaketa zama handiak ere. Baina guztien artean aipagarriena AFIT da, gaur egun, estatu mailan nahiz kanpoan erreferentzia den antropologia femi-nistako ikertaldea, alegia. Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) Antropologia Feminista Ikerketa Taldea (AFIT) Eusko Jaurlaritzak aitortutako ikerketa talde finkoa da eta Mari Luz Esteban irakaslea da haren zuzendaria. Talde hau ikerketa proiektu eta

kontratueta, publikazioetan eta doktoretza tesien zuzendaritzan ibilbide luzea duten 26 irakaslez zein ikertzaile hasi berriez dago osatua.

Ikerketa talde honen berezitasuna marko teoriko eta metodologiko feminista da. EAEan ezaugarri hau nagusi duen ikerketa talde bakarra da. 2008-2009 ikasturtetik Ikerketa Feministak eta Generokoak Masterraren antolakuntza eta irakaskuntzan ere hartzen dugu parte eta baita izen bereko doktoretza programan ere (UPV/EHU).

AFITen ikerketa lerro nagusiak lau dira: (1) Gaur egungo egoera politiko eta ekonomikoan desparekotasun eta bazterketa prozesuak. (2) Eremu ezberdinetako parekidetasun politikak eta politika feministak. (3) Emozioak, praktikak eta gorputz politikak, eta identitateen birformulazioa. (4) Ikuspegi teoriko eta metodologiko ezberdinen berrikustea.

Antolatutako azken ekimenen artean dugu taldeak sustatutako *Pioneras/Aintzindariak* (Inge Mendioroz, 2020) dokumentala, zeinetan Teresa del Valle, Dolores Juliano eta Verena Stolcke autoreen testigantzak jasotzen diren. Genealogia lan honi esker, euskal antropologian ikuspegi feministak ia azken lau hamarkadetan izan duen garrantzia azpimarratu eta plazaratu nahi da Gizarte Antropologia sailaren sortzailea izan zenaren lana eta bizitza akademiko eta profesionala balioan jarriz.

5. ONDORIOAK

Euskal antropologia garai ezberdinetatik igaro da. Sorrera garaia dagokionez, ezaugarriarik aipagarriena jakintza arlo hau akademiatik at sortu izana da. Ahaleginak egin baziren ere, hein handi batean Eusko Ikaskuntzaren partetik, XX. mende hasierako testuinguru historiko eta politikoak ez zuen ahalbidetu garai hartan egindako euskal bizimoduei buruzko ikerketek garapen akademikoa izatea.

Antropologia disziplina Euskal Herriko Unibertsitatean lehen aldiz ikastaro isolatu moduan eskeini zen 1979/80. hamarkadan. Ordutik hona errealitatea asko aldatu egin da eta egun, lau urteko gradua da espezializatzeko aukera ere egonik bi urteko masterrari esker. Testuan erakutsi izan den moduan, egun antropologiak unibertsitate barruan betetzen dituen kalitate irizpideak, hein handi batean, euskal gizartearen sektore eta norbanako batzuek ezagutza eta praktika honekiko erakutsitako interes kolektiboaren mobilizazioa eta instituzionalizaren ondorio da.

Gizarte Antropologia gradua abian jarri zenean, 2010. urtetik aurrera, ikasketa esparru hau erronka berrien aurrean aurkitu izan da. Guztien artean aipagarriena antropologiaren aplikagarritasuna argitzearena izan da. Eztabaida hau ez da berria disziplina

barruan, ordea. Hala ere, unibertsitate ikasketak profesionalizatzeko erronkaren aurrean etorri zen euskal bizimoduen eta gizarte-aldaketen inguruko ezagutzek izan dezaketen erabilera publiko eta ekonomikoaren inguruan birpentsatzeko beharra. EA Eren dimensio geografikoa mugatua izanik, Gizarte Antropologia graduko practicum ikasgaiak hein handi batean gure testuinguruan antropologoaren profil profesionala definitzen eta zehazten lagundu du. Zazpi urte pasa dira lehen antropologiako practicum ikasleak Euskal Herriko entitate ezberdinetan kokatu zirenetik. Haien arrastoa bertan, gehi haiekin batera saileko tutoreek egindako lanak lagundu du, antropologo batek egiten duen lana argitzen eta gizarteratzen.

Bestalde, euskal antropologiak akademian duen presentziaz hitz egiterakoan ezin da genealogia ahaztu. Aintzindari akademiko zuzena Teresa del Valle irakaslea izan zen eta haren ekarpen teoriko-metodologikoak gaur egunera arte dirau EHUko Balioen Filosofia eta Gizarte Antropologia Sailean. Hau honela da, hasiera hasieratik Del Vallerekin batera ikerketa ildo sendoa jorratu zelako sailaren barruan, haren inguruan ikerketa talde zabala eta potentea sortuz. Egun, Del Valletik datorren ikasketa feministen adierazlerik aipagarriena Mari Luz Estebanek zuzentzen duen AFIT ikertaldea dugu.

Baina genealogia ere beharrezkoa da hutsuneak hautemateko. Nola da posible euskal antropologian aditua den Joseba Zulaika bezalako antropologoak “disziplinaren urrezko garaia” bezala izendatu zuen horren arrastorik ez agertzea antropologia akademikoan? Euskal etnografiaren sortzailea izan zen Jose Miguel Barandiaran eta euskal etnografia eskola antropologia akademizatuan ozta-ozta egon da presente. Aztergaiaren hautaketari eta gaur egungo teorietan oinarritutako tratamenduari buruz egon zitezkeen desadostasunetatik baino harago, egia esan, haren praxia funtsezkoa izan zen euskal gizartean diziplina hau ezagutarazteko orduan.

Euskal antropologiaren bidea luzea da. Asko ibili da orain arte eta bidegurutze bakoitzean hartutako erabakietan diziplina landuz joan da. Horrela jarraituko dugu egiten ezagutza arlo honen dozentziara eta ikerketara dedikatzen garenok, beti ere unibertsitateko bikaintasun-parametroei erantzunez baina ezagutza arlo honek Euskal Herrian behintzat, herrian sortu zela eta herriak landu zuela ahaztu gabe.

6. BIBLIOGRAFIA

- Aguirre Baztán, Angel.Z. (1986). Etnografía y folclore en el País Vasco y Navarra. In Ángel Aguirre Baztán (ed.) *La antropología social en España*. Barcelona Publicaciones Universitarias.
- Apalategi Begiristain, Jose Martin. (1981^a). Introducción a la historia crítica de la producción oral vasca. *Ethnica* nº17, Barcelona.
- (1981) Pour une histoire critique et comparée de l'anthropologie basque: où en sommes-nous aujourd'hui. *Cuadernos de Etnografía y Etnología* nº2, San Sebastián, Eusko Ikaskuntza,
- (1987) Estado histórico actual de la antropología y de la etnografía en Euskal Herria. *Ohitura* nº5. Vitoria, Diputación Foral de Álava.
- Bidart, Pierre. (2001). *La singularité basque*. Paris, Presses Universitaires de France.
- Del Valle Murga, Teresa I (1981) Visión general de la antropología vasca. *Ethnica* nº17, Barcelona.
- Bullen, Margaret (2012) Antropología feminista, antropología aplicada. Encuentros y desencuentros. *Revista de Antropología Experimental* 12, 91-102.
- Erkoreka, Anton. (1988). *Euskal antropologoak, etnografoak eta etnologoak gaur*. Donostia Barandiaran Etnografía Bilduma.
- Esteva Fabregat, Claudio (1973). La antropología aplicada y su problemática. *Reunión de antropólogos españoles* 1º. Sevilla: Universidad de Sevilla, 253-321
- Fernández de Labastida, Ixone (2013). Euskal antropologiaren arestiko garaia. Euskal nortasunaren oinarriak eraikitzen. *Kobie* 17, 55-69.
- Fernández de Larrinoa, Kepa. (1991) Euskal baserria ikasketa antropologikoetan *Zientziartekoa* 5., San Sebastián.
- (1996) El estado en la montaña: hacia una antropología de las políticas de reestructuración de la sociedad rural. *Intervención y diseños rurales: campesinos, bienestar social y antropología*
- (2002) Antropologia soziokulturalaren nondik-norakoak Hego Euskal Herrian: euskal kultura ikertzetik kultura askotza ikertzerako bideak. XV Congreso de Estudios Vascos: Euskal zientzia eta kultura eta sare telematikoak. Donostia: Eusko Ikaskuntza (p. 207-213).
- (2009). Telesforo de Aranzadi: semblanza de un olvidado de la historia de la antropología en España y el País Vasco. *Kobie* 14 (189-202)

- Gimeno, Juan Carlos (2008). Antropología(s) de orientación pública: 'asomarse unos centímetros más allá del borde, ahí donde la perspectiva se amplía ligeramente'. En: Mercedes Jabardo et. Al. (Coord.). *Antropología de orientación pública: visibilización y compromiso de la Antropología*, págs. 247-275
- Grillo, Ralph, (1985). Applied Anthropology in the 1980s: Retrospect and Prospect. En: Ralph Grillo y Alan Rew (eds.), *Social Anthropology and Development Policy*. Londres: Tavistock Publications
- Harris, Marvin (1997). ¿Qué es la antropología aplicada? En: Patricio Guerrero (Comp.) *Antropología Aplicada*. Quito: Abya-Yala
- Homobono, Ignacio. (1992) Evolución y estado actual de la antropología en España, *Anales de la Fundación Joaquín Costa n.2*, Huesca.
- Humboldt, Guillermo de (1922). Diario del Viaje Vasco. *Revista Internacional de los Estudios Vascos* nº 13. Donostia, Eusko Ikaskuntza.
- (1923) Diario del Viaje Vasco. *Revista Internacional de los Estudios Vascos* nº 14. Donostia, Eusko ikaskuntza.
- Jabardo, Mercedes; Monreal, Pilar; Palenzuela, Pablo (Coord.) (2008). *Antropología de orientación públicavisibilización y compromiso de la Antropología*. Donostia: Ankulegi
- Mair, Lucy (1997). La antropología aplicada y la política de desarrollo. En: Patricio Guerrero (Comp.) *Antropología Aplicada*. Quito: Abya-Yala
- Manterola Aldekoa, Ander. (1984) Euskaldunak: la etnia vasca, tomo IV, Etor, San Sebastián.
- Martínez Gorriarán, Carlos. (1997) Sobre la literatura etnográfica vasca reciente, *Cuadernos de Alzate 17*. Madrid, Fundación Pablo Iglesias.
- Mogel, Jose Antonio. (1981). *Peru Abarka*. Bilbo, La Gran Enciclopedia Vasca.
- Rubio Ardanaz, Jose Antronio (1996). La antropología marítima vasca. Revisión de planteamientos, intereses teóricos y temas de estudio. *Revista de Estudios Marítimos del País Vasco*. San Sebastián, Museo Naval.
- San Roman, Teresa (1984). Antropología aplicada y relaciones étnicas. *Revista española de investigaciones sociológicas REIS*, 27, 175-186.
- (2012). Reflexiones en torno a la antropología aplicada: experiencias al hilo de una investigación en antropología de la salud. *Revista de antropología experimental* 12, 115-135
- Zulaika, Joseba. (2009) *Del Cromañón al Carnaval*, Erein, San Sebastián.